

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gregorio Arreitunandia Ulacia

*Mutriku,
Gipuzkoa
(1933-2011)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

MUT-013

- **Proiektua:** Mutrikuko kantak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Data:** 2008-08-26
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Iribar, Jesus

MUT-014

- **Proiektua:** Mutrikuko kantak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Nerea - Garagarza, Garbiñe
- **Data:** 2008-08-26
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Gregorioren eskola garaiak

- **Erref:** MUT-013/001
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Beraien burua aurkezten dute. Gregorio Zumalakarregi kalean jaio zen; umetako denbora gehiena moilan pasatzen zuen. Eskolan Beheko plazako Don Marianorekin eta maristekin ibili zen lehenbizi; gero, kofradiako eskolan eta "hermanoetan" ere ibili zen. Kofradiako eskola marinelen umeentzat zen; maisua nor zen aipatzen du.</p>

Transkripzioa

-Lehenengo esaten badidazue izen-abizenak eta noiz jaio zineten.
-Gregorio Arreitaonaindia Ulazia. Jaixo nintzan "el año treinta y tres", eta "veinte de setiembre", hillan hogeixan setienbrian. "El año treinta y tres". Osea ke dakat hirurogeta hamalau, hamabost oraintxe in bihar.
-Mutrikun jaioa?
-Mutrikun jaixo nintzan, Zumalakarregi kalia, Zumalakarregi 1, pixua ez dakit zenbagarrena dan, bosgarrena-o.
-Ni Joxeba Andoni Andonegi Arrubarrena. Ta jaixua ba Mutrikun. Vicealmirante Txurruka. Erdiko Kalia. "Número ocho", bigarren pisan.
-Ze urtetan?
-Urtia "mil novecientas treinta y tres", eneruan hamabostian.
G: Bixok gitarristak.
-Orain esango didazue, Zumalakarregi kalia esan didazu, zela akordatzen zan txikittan zelakua zan kale haura-ta.

G: Bueno, mollan gu, esate baterako mollan jaixo giñan, ta gure bizitza zan molla egun, goiz guztian eta atsalde guztian eskolara jun arte-o, txikixak giñala ba molla. Eta gero pixkat hasi giñanian eskolara juten giñan, lelengo juten giñan Beheko Plazako Don Marianokin ibilli nintzan. Gero Maristak zeozen Mutrikun-ta hara juteko pixkat rekomendaziua bihar zan eta gero etorri zien hermanuak, Hermanos de Instrucción Cristiana, eta harekin sartu nintzan Beheko Plazatik. Gero ibilli nintzan mollan, Otxoakin Kofradixako eskolatan, eta handik jun nintzan erdiko kalera, hermanuak zeozen, Maristak, eta jun giñan hara. Eta hortxe hamahiru urte arte eskolan ibilli giñan.

-Eta mollan esaten didazu Kofradixan zeuala eskolia...

G: Kofradixa zaharra. Orain esaten dizoen Kofradixa zan han lehen eta hor zauan eskolia mariñelen umientzat eskola bat, eta hor ibiltzen giñan mariñelen ume danok jeneralmente. Horko maixua zan Otxoa, gizon haundi bat, ta haura egoten zan Margariñian ospedauta, hementxe Mutrikun bizi zan, eta hortxe ematen zigun eskolia ume danoi maixu batek.

2. 15 urterako marinel eginda

- **Erref:** MUT-013/002
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:05:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Moila nolakoa zen azaltzen du Gregoriok. Herrian italiarren lantegi bat zegoen eta 9-10 urterekin, eskolatik irtetean, arratsaldeetan, hara joaten ziren lanera, arrainei burua kentzera. Gutxi bazen ere, sos batzuk ateratzen zituzten lan horrekin. Aitak nahi ez bazuen ere, 13 urterekin itsasoan hasi zen lanean txalupa-mutil modura. 15 urterekin marinel egina zegoen.

Transkripzioa

-Orduan Moilla Berri eta Moilla Zahar igualak?

-Bai, Molla Berrixa eta Molla Zaharra igualak, baiña zauan beste moilla bat, hor (...) etxiak daozen, hor zauan beste moillatxo bat, eta bentak eta danak izeten zien hemen kontxa barruan, porke barkuak'e txikixak zian eta horra juten giñan eskola baiña egun guztian egoten giñan arraiñ tartian porke arrain danak deskargatzen zittuen hementxe egun guztian. Orduan bixigua-ta harrapatzen zan neguan, bixigua ondo harrapatzen zan. Eta barku danak ibiltzen giñan kordoban pixutan. Eta guk txiki-txikitatikan palpatu gendun itxasoko dana gresala. Primaberan antxoia, gero umiak giñala juten giñan burua kentzera, eskabetxa; eta hemen Don Josen fabrikia zauan, italianuen hori, eta hor eskolatikan atsaldetan askotan - arkupian onduan-, eta askotan atsaldetan-ta juten giñan lanera burua kentzera. Ume txikixak, hamar urte ta, beratzi ta hamaika-ta. Eta harrixak ipiñi hanka azpitan, mahaira aillegatu eziñ-ta, harrixak ipiñi azpitan da hantxe burua kentzen danok. Ematen zigun ez dakit zenbat, asko ez orduan, ez dakit zenbat txotx txiki, baiña etxera eramateko amorratzen gu diru hauraxe. Eta hoixe zan gure umetako hori. Gero hamahiru urte... Beti lanian. Eta behin hamahiru urte kunplittu genduenian ia itxasora begira.

Porke gurian gaiñera amak ez zoan nahi, aittak ez zoan nahi ni itxasora juteik, eta nik ez noan ertetzen barkutik, txiki-txikitatik hauraxe ikusten noan-ta. Etxian beti barkua-ta. Eta hamahiru urtekin hasi nintzan itsasora. Orduan hamahiru urtekin, eskolatikan hamalau kunplittu gabe itsasora txalopa-mutil. Lelengo hasi nintzan neguan tretzak eta karnatatu lujan-ta, hori hasitta geozen hamar urterako tretzak karnatatzen, baiña gero hamahiru urtekin ia txalopa-mutil, barkuko txalopa-mutil. Eta hasi giñan hori, eta gero itxasora juten giñan primaberan-ta abar ta. Ba ia hamabost urtekin-ta mariñel normala eindda. Osea, mariñel-mariñelak eindda.

-Aita mariñela al zan?

-Bai, etxian gero barkua gendukan eta aitta patroï ibiltzen zan, eta aittakin ba, esan dotena lehen, ez zidan lagatzen harek itxasora juten, ez zoan nahi itxasora juteik nik, estudixatzia nahi zoan-ta, nik itxasora nahi beti ta. Eskolia ihes eindda sartzen nintzan igual barkuan itxasora jun baiño lenuo ezkutauta eta ertetzen nun itxasuan. Aittari ertetzen nion: "Nun dabill oain hau baiña!". Eta itxasuan. [...]

3. Emakumeen lana: despeska eta otarrak garbitzea

- **Erref:** MUT-013/003
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:05:26. **Bukatu:** 00:07:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Gregorioren ama arrainak "despeskatzen" (antxoei burua saretik soltatzen) aritzen zen beste emakume batzuekin batera. Mutikoez egiten zituzten lanak. Emakumeek txalupetatik arrainez beterik ateratzen ziren otarrak nola garbitzen zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta ama etxian, ezta?

-Ama etxian. Amak orduan ba, orduan eitten zian primaberan-ta otarratan ataratzen zan arrain dana ta hemen, esan deten bezela, kofradi zaharrian eta hor bajamarra zeuanian itsasua behera egoten zanian, maria bizixak-eta, sekatu eitten zien batelak danak eta potiñak, potiñ haundixan ekartzen gendun, "zingira" esaten giñun, barkua amarrauta zeon tokittik ekartzen gendun arraiña horra gaztiak eta otarratan bizkarrian ataratzen genduzen eskailleretan gora dana horra. Eta saretan-ta ibiltzen zan orduan primaberan, eta andrak-eta etortzen zien sare tartian buruak kentzera, arraiña despeskatzera, burua soltatzera antxoai. Betetzen zienian otarrak, dozenerdi bat otarra-edo, hartzen genduzen gaztiak potiñian eta hor bizkarrian horra gora arte. Hori zan guk hamalau urte-ta, hamabost-ta gendukenian. Gero hamabost urte nakala nik-edo sariak galdu zien ta, horrek "de cerco" esaten zixoena, sare honek, ardorako sariak esaten giñoena azaldu zien; ez zien haundixak baiña behintzat harekin gero juten giñan bajurata-ta antxoatara, baiña maillako sariak galdu ein zien, lan asko ematen zun horrek. Harek andrak orduan eitten zeuen, andrak eitten zeuen otarratan guk ataratzen gendun arraiña eta otarrak fabrikara eramaten zittuenian, fabrikatara jun -bakoitzak bere otarrak pinttauta eukitzen zittuen barkuek, bakoitzak bere otarrak-, fabrikatara jun, otarrak ekarri, garbittu, andrak eitten zittuen horrek danak. Buruan hartu bost edo sei otarra edo zortzi-tta, abillidadia zeñek inddarra zelakua..., otarra.

Ekartzen zittuen mollara. Arraskatan-da. Itturrixa zauan orduan, arranplia, hor itturri bat zeuan, danak andra danak remangatu, jata jarri oiñutsik eta eskobillekin itsasorako berriz otarrak garbittu-ta. Sariak garbittu, despeskatu, buruak eta apartatu ta gizonai preparatu itxasorako-ta. Lan gogorra zan haura, gure gaztetakua.

4. 17 urterekin patroï

- **Erref:** MUT-013/004
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:07:32. **Bukatu:** 00:08:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Aita gaixotu egin zen eta 17 urterekin itsasontzia hartu eta patroï joan zen Gregorio 18 gizonekin. Euren ontzia ("Elenita") nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

Gero pues eso, hamabost urte, hamasei-tta, puxkat gizon ein giñan-ta, gero neri aitta pixkat gaixotu ein zaten, estamaguko pixkat sufritzen zoen-ta. Ni hamazazpi urte orduko patroï jun nintzan itxasora. Aitta etxian geratu gaixorik eta hamazazpi urte orduko jun nintzan barkuakin hemezortzi gizon barruan diala. Orduan barkuak'e txikitxauak zien, klaro, Elenita zan gure barkua. Hirurogeta hamarreko Yeregi motorra zakan eta hemezortzi gizon ibiltzen giñan barruan, gizonak (aukeran zeuren) itsasorako. Mutrikun dana mariñela zan-ta. Gizonak mariñel-mariñelak, gizonak potentiak eta itxasuan habillak. Eta halaxe zan gure bizimorua. Harik eta puxkat e, gero hasi zien motorrak haunditzen-ta abar-ta. Gero motor haundixakin-ta hitz ingo deu.

5. Txibiak, arrastea, bajura eta alturako arrantza

- **Erref:** MUT-013/005
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:08:24. **Bukatu:** 00:11:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>"Xoxua" (Joseba) Erdiko kalean bizi zen; kalea deskribatzen du. Umea zela, ama (marinel baten alaba) sareak josten aritzen zen, Joseba otarran sartuta edukitzen zuen bitartean. Mutikotan osabarekin txibiatara joaten zen, ohitzen joateko. Hiru urtez osabarekin ibili ostean bapore handira, engrasera, pasa zen eta bajurako arrantzan, antxoatan eta abarretan ibili zen. Motorreko karneta atera eta bajuran ibili zen 28 urterekin. Ondoren, ia 30 urtez arrasteko arrantzan ibili zen makinista modura, Frantzian, Mauritanian eta abarretan.</p>

Transkripzioa

-Jaio zinen erdiko kalia?

-Erdiko Kalia, bai.

-Zeure akorduan zelakua zan inguru haura?

-Ba inguru haura zan edarra, plaza pare-parian, eta ni txikixa nintzala beti plazara juten nintzan eta hantxe jolasten nuan. Gero eozen barandilla batzuk-eta (...) eta hala eta hola, eta nere ama mariñelen alaba zan eta etortzen zan sare jostera, gazterik ekartzen nittun horra molla gaiñera eta (egoten zan) sare josten, eta ni otarran sartuta. Amak esaten zidan hori, gero konturau nintzan ni lau-bost urte nakanian beti otarria baiña beti otarratik ihes eitten nuan eta hamen mollan ibiltzen nintzan. Eta gero hasi nintzan osabakin lantzian-lantzian juten nintzan txibixetara ta beratzi urtekin igual, baiña enbarkatu gabe, sartu gabe bertan.

G: Ohitzen.

-Ohitzen. Eta gero hasi nintzan berakin hamahiru urtekin-eta ibilli nintzan motor txikixan, hamen Zumaira kabratara juten giñan, askotan arraunian lehengusua ta bixok. Haizia bazauan belan, eta hantxe egoten giñan, igual goizian goizeko ordu bixetan erten igual, eta arraunian tapa-tapa-tapa. Eta belan, haizia bazauan belan beti tta bueno. Ta gero hortikan jun nintzan, hor ein nuan bi urte-hiru, ta jun nintzan bapore haundira engrasadore. Engrasadore jun nintzan eta ibili nintzan makinan han, bajuran, honek esan dan tipora, antxoatara (...), hartan, hortan eta danian. Eta gero denporiakin zerbiziora ere bai, zerbiziora jun nintzan, eta zerbiziuhan ein noan hogeta bat hillabete, eta gero atera (...) motorista. Hortako ni jun nintzan hamasei urteko, honek esan duana makinista. Jakiñ asko ez baiña baten bat jun bihar zoan eta neu nenbillen behian eta jun. Eta gero zenbat urte arte ibilli nintzan ni? Zerbiziotik etorri, motorista atera, Ondarrun eskolan ibilli nintzan, motorista ibilli nintzan bajuran beste sei bat urte eta jun nintzan arrastera hogeta zortzi urtekin. Da arrastan ein dittut ba urte asko, hogeta hamar urte. Arrastan eibilli beste danak bezela hamen (Marruekosko?) kalan 'e bai. Ibilli nai Frantziako kostan.

G: Baiña makinista beti. Gero jun nahi (Ronkala?)'re bai, gero jun nai Mauritaniara're bai, konjeladorakin, eta Senegalera ere bai rumanoei arraiña eamatera. Bai, han ein nittuan bueltan-bueltan lau urte t' erdi edo bost. Handikaldian.

6. Bost hilabetez itsasoan, Dakarren

- **Erref:** MUT-013/006
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Gregorio eta Joseba kinta berdinekoak dira, eta batera hasi ziren arrantzan. Mutrikun, ontzi gehien egon zirenean, 21 baxurako ontzi egon ziren. Soldadutza Ferrolen (Galizia) egin zuen urtebetez; eta, bueltatu zenean, baxurako arrantzara joan zen Reina Rosario izeneko itsasontzian. Beraiek egin zuten itsasontzia. Pasadizo bat kontatzen du. 23 urte zituela, Dakarrera (Senegal) joan zen, eta bost hilabete egin zituen bertan; erlojuarekin eta konpasarekin gidatzen ziren.

Transkripzioa

- Edade berdintsuan hasi zineten bixok itsasuan?
- Bixok kinta bat, bixok edade batekuak gea ta hasi be itxasuan igual.
- Orain baino enbarkazio dezente gehixago egongo ziren.
- Asko.
- Zenbat akordatzen zate?
- Mutrikun egongo giñan gehixen egon giñanian hogeta bat bajurako enbarkazio, hogeta bat.
- Zelakuak zien barkuak?
-Barkuak zien ederrak porke ia... Nik esan det neure bibenzia horrek zerbizio aurrera arte, patroï hasi nintzan arte. Eta hau bezela neu ere zerbiziora, alkarrekin jun giñan. Bueno, hau zaharro eta beranduo jun zan; ni gaztio ta orduan turnuak eitten zittuen-ta. Ni hemeretzi urte kunpliduta jun nintzan zerbiziora eta hau hogeï urte kunplittuta. Eta jun nintzan zerbiziora, eta handikan, klaro, lehen esan detena, gure aitta beti makalik ibiltzen zan eta, etorri nintzan, Ferrolen ein noan urtebete pasa, hamalau hillebete. Etorri nintzan Bilbora gero. Eta Bilbora etorri nintzanian itsasorako primaberan-ta zain egoten zien noiz etorriko, ta permisua ematen zianian ba itxasora juten nintzan barkuan. Jun nintzanian zerbiziora handik etorri tta hor ibiltzen nintzan pikituak eitten eta abar-ta, eta zerbiziuia kunplittu nuenian ia segittuan pues bajura (...) ein gendun barku berrixa, ordun ein gendun, Reina Rosario izena zakan eta ehun da berrogeta hamarreko, ehun da berrogeta hamar kabaloko motorra. Orduan zan haura summum. Eta ein gendunian barku haura esaten zigun hemen mariñel zaharrak-eta, barku haundi ikusten zan ba besteikin konparatzeko ta, "Hori zetako, hondar karriurako barku hori edo?". Ez zan harrapatzen oin bezelako kantidadeik eta arraiñik ba, sariak eta txikixauak zien-ta. Baiña harekin hasi giñan arrantzan eta ondo harrapatzen gendun antxoia-ta, harek hogeta bi milla kargatzen (...) Eta barku danak ekartzen zeбен. Guk, porejenplo hori arraiñ hori, baiña beste batek hogeï, hamar, hamabost. Eta ez zan arraiñikan saltzen. Geuk eaman bihar izaten giñun askotan primaberan fabrikantiei lonjak eta gazitzeko arraiña geuri hartziarren arraiña. Eta akordatzen nai baten, hogeta bi mila kilo ekarri genduzen eta Bustok hartu zigun arraiñ pillo bat, Bustok hemen behian'e bazakan fabrika bat, eta ez zakala berak tokirik sartzeko eta gero lonjara ama ta arreba ta gazitzera arraiña hartziarren. Ta "una,veinte" ein zigun preziua kiluak, "una veinte". Hogeta hamasei, hogeta hamabosteko arraiñ haundixa. Eta harrapatzen zan orduan arraiña aukeran, bazauan-ta. Eta gero barku harekin, nik zerbiziuia kunpliduta, klaro, pentsatzen noan munduan ez zauala zerik, eztoporik ezere, eta hogeta hiru urtekin jun nintzan Dakarrera barku haretxeekin, Dakarrera arte. Pasa genduzen bost hillebete, ixa sei hillebete, bost hillebete pasa. Jangoikua dakagu bakarrik, orduan ez zeuan ez aparatoik eta ez kristoik eta ezere. Erlojo bat tripan eta konpasa eta sextante bat. Eta jun giñan Dakarrera arte. Dakarren pasatu gendun "canutas" han. Arraiña aukeran zeuan zimarroia ta hori, baiña saltzen problemak eukitzen genduzen, porke etortzen zien barkuak

Canariasetik nodrizak etortzen zien guri barkuan hartu arraiña itsasuan, edo puertuan, han Dakarren, eta eramaten zuen peninsulara-o, eurak arraiña saltzen zoen. Edo Canariasen, Ojeda ta konparsa zian-ta. Eta hogei mila kilo deskargatzen bagendun, hamabost deklaratu, eta geuk jakin gehixo zana arraiña. Sekulako trifulkak euki genduzen. Eta azkenian aspertu giñan eta etxera etorri giñan. Baiña etxera etortz(eko...) ere Canariasen pasatu genduzen bost egun dirurikan kobratu ezindda. Osea, diru dana kobratzeko gendukan kostera guztikua, baiña oaindio numeruak eta ein ezindda. Guk gendukazen numeruak koinziditzen ez harekin ta abar-ta. Sekulako folloiak euki genduzen eta azkenian etorri giñan etxera jota derrotauta handikan, Dakarretik.

7. "Reina Rosario" itsasontzia

- **Erref:** MUT-013/007
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:15:12. **Bukatu:** 00:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

"Reina Rosario" itsasontzia deskribatzen du. 23 urte bakarrik izan arren, berak egin behar izaten zituen mediku lanak eta beste hainbat lan ere, bera zelako patroia. 16-18 lagun ibiltzen ziren bajurako itsasontzietan. Itsasontzi bakoitzean patroia, makinista, engrasadorea eta marinela egoten ziren, besteak beste.

Transkripzioa

-Zenbat lagun tripulazioan?

-Hemezortzi lagun Reina Rosarion. Eta ez zan holako oain bezelako, gero ein genduzen barku haundixak bezelakua, guretzat orduan barku haundixa zan baiña ez zakan harek komodidadarik eta eze. Zakan holako kubiarta txiki bat. Alkarren gaiñian danok sartzen giñan kamaiña txiki batzugin, eta gero han berua-ta, kininak-eta hartu bihar genduzen, mariñelai eman bihar zakon, hara jute orduko ein genduzen rekonozimentuak eta gauza horrek danak, eta esan zigun medikuak zela eman bihar giñun kinina gizonai egunian noiz ta zenbat. Ta patroia zan danak organizatu bihar zittuana, eta neu han medikua eitten, patroia eitten ta etxeoandra eitten da danak eitten hogeta hiru urtekin.

-Eta hemen bajuran zenbiltzatenean tripulazio normala zenbat izaten zineten?

-Ba hoixe, orduan hemezortzi gizon, kapazidadia zakanak hola pixkat harrapatzen zonak hemezortzi, eta bestela hamasei gizon danak orduan. Eta barkuak zien, ez zien gero zuek ezautu dittuzuen barku horrek eta ez. Haren erdixa. Honek porejenplo berrehun tonelada ta ehun ta berrogei tonelada ta bazien azkenengo barkuak, harek zien hirurogeta hamar tonelada. Registro Bruto, e. Hirurogeta hamar toneladako barkuak. Beste estilo batekuak zien Elenita ta honek, Kresxenen eta barkuan estilokuak ez zien. Beste estilo bat, baiña pixkat pixkat haundixo, neberak eta holakotxiak. Hamar milla kilo atun neberan ta holako zerak, ta segittuan betetzen gendun haura.

-Barkuan bakoitzak bere funtzioa eukitzen zuen, ezta?

-Barku bakoitzian egoten zan patroia eta sotapatroia, patroiai laguntzeko, gau ta egun ezin zan patroia ibili tta, eta gero makinistia eta engrasadoria, eta beste danak zien mariñelak. Mariñelak ba, bakoitzak berak funtzioa bazekixen zer egin, esan det ba, ez zien oain bezelako mariñelak, dana ainddu ein bihar-ta; bakoitzak berak zakixan arraiña jotakuan ze ein bihar zoan, kaiñaberia zeñek hartu bihar zoan, kakua, gantxua zeñek hartu bihar zoan, nebera zeñek arraiña sartu bihar zoan; osea ke bakoitzak bere funtzioa kunplitzen zan esan gabe. Askotan egoten zien beti bezela, danian bezela egoten zien bat edo beste despistatzen zienak eta, baiña hari orduan patroiak begixak zorrotz, o sotapatroiak o gizonak eurak, alkarren lagunak, porke beste lagunak izorratzen egoten zan haura lanik eitten ez zebana, eta segittuan ematen zixuen altua.

8. Itsasontzi barruko bizimodua

- **Erref:** MUT-013/008
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:17:46. **Bukatu:** 00:20:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

<p>Itsasontzian jaikitzen zirenetik egunaren bukaerara egiten zutena azaltzen du. Gosaltzeko kafea eta esne kondentsatua eta bazkaritan lapikokoa jan ohi zuten, gehienetan zopa eta garbantzua arrainez lagunduta. Afaltzeko marmitakoa jaten zen normalean, atuna nahikoa izaten zuten eta.</p>

Transkripzioa

-Zuen artian konpondu, lotarako eta jateko-ta zela izaten zen eguna barkuan?

-Bueno, barko barruan goizian atunetan izaten zan, goizian goizao (...) eguna, laurak lau t´erdia- o, eta egunakin batera gizon danak alztatzen zian, patroia latzatzen zan-ta, benga, esnatzen zanian, arriba!, alztatzen zien ta lelengo aparejuak bota danak itxasora, kazan ibiltzen giñan orduan jeneralmente atunetan, aparejuak bota itxasora, eta gero kozineruak, kozinero bat egoten zan, kozinerua gure tarteko bat jatekoa nahi zuana ein, porke jeneralmente hamasei edo hemezortzi gizonen tartian iñok ez zoan nahi izeten jatekoa ein, porke gitxi (...) danak egoten gea exijentiak. Batek, “honek txo, inddiarrak gaur”-eta. Bestiak marmittakua o lokesea-ta, orduan ez zauan elejida haundirik baiña, elekzio haundirik ez zauan baiña behintzat; eta egoten zan koziñerua eta harek egiten zoan goizian kafia. Kafia preparauta eukitzen zoan, aparejuan botatzen zienian gizon bakoitzak bere haundixonak egoten zien eta hartu haundixonak eta kafia hartu eta ogi puxketa batekin eo kafia hartu, beste batzuk “leche condensada”-edo bota puxkat eta kafesnia ta hauraxe zan armozua. Goizeko zortzietako edo zortzi tx´erdietako gosiak egoten zan gizona, eta orduan bai bokadillua, o tortillia o arrain pixkat o atun zati bat hori o bestia. Goizian bakoitzak bere eitten zoan zartaiñan eiñ, ogi bitartian hartu, bakoitzak bere bokadillua eiñ, eta bazkaiñara arte, porke bazkaixa izeten zan hamaika t´erdiak-o, hamabixak eguardixa-eo, izaten zan, eta bazkaldu arte ba harekin egoten zan. Jendiak bazkaldu, bazkaldu ez zauan oain bezelako elekziorik-eta. Izaten zan inddiarra, lapikokua jeneralmente: inddiarra o garbantzua-o. Garbantzua domekatan, zopia ta garbantzua. Eta

izaten zan ba inddiarra, lentejia ta horrek, lapikokua, ta gaiñetikan zeoze bazauan, arraiñ pixkat, atun pixkat o zeoze, baiña jeneralmente ez zan etxetikan ezebe eramaten, porke ez zauan orduan diruik-eta, gure gaztedenporan ez zauan diruik, eta itsasora eramaten zan junto-justo patatia, eta horretxek indiarrak eta horrek eta. Jaten zan hori, betetzen zan ahal zoan gehixen marmitta haundixa bete eitten zoan koziñeruak eta jan haura tartera batetik danok, eta eurixa baldin bazauan, tartera erdi atera lapikotik eta jan ordua osua eurixa ta hantxe, e! Ez zauan barruan-ta koziñan tokirik iñon, jaten zan danak tartera batetik egurrezko kutxarakin, tipi-tapa danak eguardixan. Eta berriz gabian afaixa ba seirak o seitterdiako, porke eguardiko hamabixetatikan gosetuta egoten zan jendia ta. Eta berriz e gabian jeneralmente izaten zan marmittakua, zela atuna egoten zan eta patatia, marmittakua ein, marmittako pillo bat jan eta hoixe zan jatekoik onena. Baiña gaztai-tta ez zauen gustatzen marmittakua-ta. Orduan gorrotua jeneralmente hartzen giñuan gaztiak porke ez zan haura ta; baiña jatekua hoixe zan itsasokua.

9. Txalupa-mutiletik marinelerako bidea

- **Erref:** MUT-013/009
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:20:52. **Bukatu:** 00:22:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Mutil gazte gehienak txalupa-mutil modura hasten ziren marinela izatera iritsi aurretik; beraien zeregina aipatzen du. Ardoa zahagian eramaten zuten itsasontzietan.

Transkripzioa

-Esan dozu jentia danak zekixela bakoitzak zer egin behar zuen. Danak txalopa-mutil hasten zielako?
-Asko txalopa-mutil, nobenta porzientua txalopa-mutil hasten zien.
-Eta hari ze tokatzen jakon egitea?
-Txalopa-mutillak ein bihar zoan gizonai barruan bere kapritxo eta mandatu danak. Igual, bai-bai, atzian baldin bazeuan arrantzako, barkuan atzian, aurrian eukitzen zittuen otarratan beuren gauzak-o, gaztai pixkat-eo, txokolate pixkat eo baten batek eamaten bazoan; o zigarro-paketia-o. Eta mutillai: "Aide hara eta ekarri neri otarratik!", eta tak! Gero ein biha zittuan ontzi danak garbittu. Eta txalopa-mutillen lana izaten zan bastante gogorra. Eta irabazten zoan soldata erdixa, gizonen soldata erdixa, eta eitten zoan lana gizonak baiño gehixo. Nik patroï jarri nintzian lelengo gauzia ein noana zan txalopa-mutillai soldata osua eman, porke hori, joer! Neu txalopa-mutil urte askuan ein noan eta, sufriduta. Eta gero, orduan izaten zan gaiñera, ardaua ta ez zan eramaten barriletan eta gero azkenera botilletan-ta baiña. Orduan zaragixan eamaten zan ardaua. Ha zaragixa zan, pikia eukitzen zoan barruan, ta egoten zan atzeko bodegan zaragi bat edo bi, asko ere ez zan eamaten ardorik porke astebete egoten zien itsasuan, barkuak ez zien holako kapazidade haundikuak-eta. Ta zaragixan ardaua ateratzia hauraxe izaten zan grabia txalopa-mutillentzat. Pikia eukitzen zoan eta haura muturra zabaldu ein bihar zan, putz ein bihar zabaltzeko, eta gero sartu zera bat-eta, gomaxo bat eta ardaua etara ta

botatara sartu-ta. Jeneralmente txalopa-mutillak lautik hiru hantxe mariatu eitten zian ardaa ateratzen. Eta ez zauan gizon bat kapazidadekorik, egoten zan bakarren bat baiña, esateko: “geldik zu egon pixkat, neuk aterako det eta”. Letxe! Txalopa-mutillentzat txarrena izaten zan ardaa ateratze hori, beti mariauta. Pikia hemen barruan-ta, kostria eindda-ta. Txalopa-mutillena haura zan bastante gogorra.

-Gaztiena?

-Edo zaharrena. Orduan ez zauan jubilazioik eta eze. Eta nik gizonak eduki ´ttut barruan ba hirurogeta hamar urtekin-ta barruan. Ta gaiñera gizon mariñelak eta onak, baiña hill arte itsasuan ibiltzen zan orduan, porke ez zauan, ez zan kotizatzen seguridade sozialik eta, ez zauan jubilaziorik, ez zauan ezebe (...). Eta hill arte egoten zan mariñela itxasuan, berrogei urtekin hiltzen bazan eo berrogeta hamar eo hirurogeikin eo hirurogeta hamarrekin, hill arte itsasuan. Orduan mariñelak zaken gogorra. Oaiñ coser y cantar da lenaokuakin konparatzeko. Oaiñ’e eitten da lana itxasuan, itxasua gogorra da. Egotia bakarrik itxasuan bera gogorra da. Hamar-hamabos egun pasatzia ta “a la buena dios” hori bale, baiña. Oan dozen adelantuak eta oan dozen komodidadiakin itxasuan... Oan barku baten dozen komedorak-eta. Nik azkenengo barkua ein noanian’e bai. Baiña oan asko gehixo. Nik azkenengo barkua ein noanian, nere Inmaculada Maria, ein nion kozina haundi bat, hemezortzi gizon sartzen giñan hantxe sukaldeko mahai haundixakin. Danok hantxe bazkaldu ta afaldu ta eitten gendun. Ez arrantzan, e. Arrantzan kubiarta gaiñian eitten zan, tente jaten zan, nik bizi guztian tente jan izan det puentian. Baiña egoten giñan zaiñ etxera etortzekuan arrantzia baldin bazauan-ta. Benga, abante, jarri danok behian da bazkaixa preparatzen danian abixau kozineruai ta behian tertulixia-ta. Beti egoten zan baten bat, mariñelen bat janan ez zoana igual paellia ipini tta gustatzen ez eta. “Zu, gora etorri hona, barkua eramatera-ta”. Ta ni gizon tartera-ta. Beste gauza bat, baiña hori gaztetan, gure gazte denporan ez zauan, pentsatu’re ez.

10. Itsasoko bizitza lehen eta orain

- **Erref:** MUT-013/010
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:22:53. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Garai hartan ez zegoen jubilaziorik eta hil arte ibiltzen zen marinela itsasoan; gogorrak izaten ziren. Lehengo eta oraingo itsasontziak eta bizimodua alderatzen ditu.

11. Motoristen zeregina

- **Erref:** MUT-013/012
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Motoristen zeregina azaltzen du "Xoxuak"; berak hartan lan egin zuen. Gregoriok tretzen aipamena egiten du.

Transkripzioa

-Zu be bajuran, baiña zu motorista. Zuria diferentia izango zan. Ze egiten zuan motoristiak?

-Motoristiana zan ba mariñelak bezelaxe. Bakarrikan zeoze pasatzen bazan makinan, eta makinia zaindu eta horrek danak. Eta txarrena izaten zan motoristista, porejemplo erten zuk Mutrikutik eta bixigutan jun bihar Exkoteran, eta Exkoteran goizeko ordu batian ertetzen gendun, eta hara aillगतzen giñan ba segun egunak e igual bostak edo laurak o lokesea. Hara arte jun bihar ziñan guardixan, han guardixan jun eta gero bota bihar ziñun kordia, eta su segi hantxe, kordia bota eta segi hantxe, eta nik lautik hirutan aparejua neuk kalatzen noan. Hirurogei tretza botatzen gendun guk. Eta aparejua al atun.

G:Trezak zian ehunda hogeia amu eukitzen zebeñ, ehun ta hogeta hamar amu ta luziak. Ehun metroko kordelak.

X: Eta botatzen genduzen, hasten giñan (alan) kanporutz bota han barrena hor barrena eta beste txikoteran jun eta hasi halan eta taka-taka, geldi-geldi abante, ta tira, tira, abante, geldi-geldi eta ala ta ala ta ala. Eguardi aldera-o (han batzen?) genduzen eta abante. Eta tretzan hastia bazan, tretzan askotan tretzan nahastatu, beste batekin'e bai kordan zauanakin, korrentak edo peau-edo. ta orduan eitten zan ba trezak libratu bihar eta lotara batez, ... jendiak, esku asko bihar zan-ta lotara batez. Lorik egin gabe etxera igual, batzutan ordubete edo ordu bi, lorik egin gabe berriz'e etxera. Hurrengo egunian bazan berriz ere abante, halaxe ibiltzen giñan. Makinistia nabil esaten. Eta askotan baita gertau zat neri, etorri etxera, eguena ta, nobixiana jun bihar eta kapaz ez eta lo. Kapaz ez. Lorik egin gabe ezin leike ibili ezta bate. Astuna, astuna zan.

12. Bajurako arrantza

- **Erref:** MUT-013/014
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:31:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

<p>Bajurako arrantzaren denboraldi ezberdinak izaten ziren arrantza bakoitzerako. Neguan tretzekin gastua egiten zen eta dirurik ez zenez izaten, udaberrian ordaintzen ziren. Udaberrian San Jose aurretik hasten ziren antxoatan; atunetara Galiziara eta Xixon aldera joaten ziren. Afrikako kostan arrantzaren ibiltzen zireneko kontuak. Casablancan (Maroko) bizitakoak.</p>

Transkripzioa

- Bajuran zer zenuten urtean arrantzaldi fijuak, enerotik martzora ez tdkit

zer. Zela izaten zen hori?

- Bai-bai, egoten zien tenporadak, neguan izaten zan bixigu denporia ba hori izaten zan, hasten zan San Anton aurretik haiketa febrero arte-edo izaten zan bixigua. Baiña, klaro, ez zan izaten fijuak, lehen esan deuna, itsasoko gauzak sekula ez die izan fijuak; eta hori arraiña harrapatzen baldin bazan, arraiñik ez bazan harrapatzen, beste ofizio batera kanbixau bihar zan han, lokesea, han ez bazauan bixiguik-edo... Eta askota juten giñan gitxi harrapatuta esaten zana, askotan egoten zian esaten zebeak: "afaixa bada're ekarriku ta, etxerako afaixa bada're ekarriku'u". Ba neguan eitten zian gastuak, kordak eta tretzak eta eitten eta kordak, itten zan gastu bat, eta gastu haura pagatzen zan beti primaberan, porke neguan ez zan irabazten haura pagatzeko diruik, porke haura pagatzen hasten bagiñan gizonak ezin zoen diruik etxera eraman, eta partilliarena eiñ eta andria etxian hainbeste umekin igual, eta partilla gabe aste bat jun eta bestia jun, eta itten zan ba partillia etxera arraiñakin eta gastuak laga primaberako edo udako pagatzen zien antxoiakin edo atunakin. Eta itten zan negua ba pasatu ahal zan modura. Gero primaberan hasten giñanian, orduan hasten giñan antxoatan igual San Jose aurretik, gure gazte denboran esate'et hori, hasi giñanian itxasuan. Eta primaberan harrapatzen zan arraiña bajuratan-ta, izurdiakin-ta, barkuak, lehen esan dotena, ez zien haundixak-eta. Hona barrura arte etortzen zan arraiña. Hemen egoten giñan zaiñ igual eta egunez bajuratako arraiña ekartzen gendun, ehun arruan ta berrehun-ta. Ehun arruan zien pues milla ta bostehun kilo-edo ta, bestiak bi milla kilo ta, asko zan porke barkuak (...) etortzen giñan hona atera ta; primaberan hola ibiltzen giñan. Eta gero atunetan juten giñan Gijon arte-edo, Galizia arte-edo juten giñan atunetara, eta handikan itten gendun kosteria jeneralmente, porke hona etortzeko urruti-tta. Arraiña jeneralian goragotikan Kantilla edaten giñon, Frantziako kostara sartzen zanian arraiña, behiñ agosto ezkerro, eta orduan ba hurrago egoten zan etxia eta etxera etortzen giñan atunakin-ta; baiña lelengo Gijona ta juten giñan, Coruña ta kazan ibiltzen giñanian. Eta hemezortzi gizon beti barruan, e, hamasei-hemezortzi gizon beti barruan. Eta orduan jendiak gosia etxian-ta gosia eta dirua nahi etxera ekarri-tta. Ni jun nintzarian Dakarrera hogeta hiru urtekin, esan det lehen jun nintzala Dakarra. Eta harrezkerro juten giñan beti o beste barkua ein noanian, beste barku berrixa ein noanian ere juten giñan Algecirasen basia eiñ eta juten giñan Afrikako kostara arrantzara. Juten giñan Casablancan barrena-ta, Safi tta horrek danak juten giñan, bajatzen giñan igual e ixa Dakarrera arte berriz'e Inmaculadakin. Baiña orduan eitten gendun, arraiña eskarmentauta nauan ni (...), eitten gendun arraiña geuk ekarri gora Algecirasa eta Algecirasen saldu. Eta egun bi pasatu (biharrian) Algecirasen, bi egun pasatu baiña juten giñan arraiña salduta dirua kobratu ta danak eindra itsasora atzera juten giñan. Eta han anekdotak kristonak Casablanca aldian ta hor-ta. Baten sartu giñan Casablancara, eiban egualdi eskasa ta sartu morduak (moruak?), fondiauta han badixan, e, eta sartu morduak barrura ta, ixa ostutzera dana harek etortzen zian. Ta guardixa in bihar han barruan-ta, eta puertora juten ez (...) uzten han Agadirren-ta. Ez zatan gustatzen molliai amarratzia barkuik porke asaltua seguru zauan. Egon bihar zan "con pies de plomo" han. Eta anekdotak kristonak pasatzen zakuzen, beltzak kaiuko haundixekin-ta hamabost-hogei beltz igual gabian. "(...) kostauan. Aiba dios!, zer...?". Gosia harek eta jatera ta sartzen genduzen barrura kozinara eta jaten eman-ta, joe!, felizao harek jaten zebebian. Erdixak ardaorik ez zebe eraten mahometanuak... Holako anekdotak ehun milla itsasuan. Txar danak ahaztu itten die, baiña gauza eskas asko pasauta, eta gero onak'e bai arraiña aukeran harrapatzen

13. Itsasontziaren prestaketa

- **Erref:** MUT-013/015
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:31:46. **Bukatu:** 00:33:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Atun, zimarro eta abarretara joaten ziren. Urte batean atunik ez zegoela eta Aljecirasera joan ziren arrantzara. Itsasontzia beti egoten zen prest; nola prestatzen zuten azaltzen du. Patroiaren ardura izaten zen gauzak antolatzea.

Transkripzioa

-Hara behera zetara, atunetara joaten zineten?

-Atunetara. Atuna, alistaua, zimarroia. Osea ke "túnidos". Hori ien zan udan. Urte baten hemen eman zon faillo atunak, eta jun giñan Madalenak arte hona jun giñan itsasora, Azores aldian-ta ibilli giñan eta iñok ez gendun arraiñik ekarri, gehixenak hiru milla kilo-edo ekarri genduzen, eta hemendik nora-nora jo bihar ba eta nik ein nuen hartu ta abante, Madalenak pasatu zienian erten gendun itsasora eta arraiñik billatzen ez eta jun giñan Algecirasera arte eta gero gure atzetik etorri zien ixa danak, Mutrikuko... Hemen geratu zian bost o sei barku txikixenak eta gero beurek atun haundixenak harrapau zittuen hemen, gero sartu zan atuna-eta. Baiña guk han harrapau gendun zimarroia ta atuna-ta ondo. Eta etorri giñan Galbarixuetan danok barku danak juntatu ta autobusak hartu ta autobusetan etxera etorri giñan. Akordatzen nai Algecirasetik Mutrikura arte luziaua (...) biajia!

-Lehen esan dozu politenak izaten zirela antxoetia, atunetia eta bixigu-ta. Barkua igual preparatzen zan?

-Bai, barkua preparauta egoten zan beti, barkuak ez zakan, aparejuak bihar zixuen diferentziak, bixigutarako bihar zixuen kordia eta antxuatarako bihar zendun sariak, lelengo maillatakuak eta gero zerkokuak. Eta atunetako bihar izaten zan, orduan pertxalakin ibiltzen giñan, eta pertxalak. Etortzen giñan, egun baten preparatzen gendun pertxalak, kendu saria, pertxalak hartu, aparejuak harutzian itsasorako preparatzen genduzen eta sartzen genduzen sokak eta holako gauzak (...) pitxak-eta, abante itsasora. Eta itsasuan bakoitzak bere aparejuak preparatzen zittuan eta taka (herrira?).

-Eta zeinek erabakitzen zuen?

-Patroiak, patroian hori zan hori, intuiziua. Si te sale bien bien, eta bestela ba "Hori kabroi hori patro hori, hori e oaintxe ez dakit ze eta badakit ze ta". Baiña ondo urtetzen bazixun, joe, e!

14. Distantziak neurtzeko erlojua

- **Erref:** MUT-013/016
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:33:58. **Bukatu:** 00:37:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Distantziak neurtzeko erloju bat erabiltzen zuten. 18 urte zituela ezagutu zuen itsasoan lehenengo hartu-emanetarako irratia. Mendiei begiratuz gidatzen ziren nondik-nora zebiltzan jakiteko. Marinelei txalupa-mutilak abisatzen zien goizaldera norabait irten behar zutenean etxez etxe joanda.

Transkripzioa

-Itsasora noiz ere bai.

-Bai, bai. Itsasora deitu juteko eta hori dana patroiak.

-Baiña esan dezunez, orduan ez zauan makinariarik-eta. Zela egiten zenduten distantziak eta jakiteko nora exakto?

-Bueno ba distantziak, esan dizut lehen, erloju bat ibiltzen gendun patroiak tripan, erloju hori pitxa batekin, eta etxetikan ertetetzen zendunian begiratzen zendun erlojuai eta erten deu zazpitan-edo, eta aillegatu gea arrain-tokira hamabixetan-edo. Honenbeste ordu ein dittugu runbo hontan, eta bazekizun etxera zela etorri, al contrario, noroeste jun baziñan, surestian etorri bihar ziñan. Baiña txarra izaten zan atunetan, hori neguan eta bai, baiña atunetan juten ziñanian ertetzen gendun itsasora eta juten ziñan bueno, nortian igual hiru ordu; gero noroestera jartzen giñan eta beste lau edo bost ordu, eta gero halako baten nordestera igual eta pasatzen zien hiru-lau egun eta zuk ez zakizun, mas o menos bai, baiña nun zeozen. Ia ni patroia hasi nintzanean gero e, honek esan dona, eskolan-ta ibilli giñan gu pixkat, Escuela de Pescan-ta, distanziak kartatan ta lanian-ta hasi giñanian-ta ta, tira! Baiña lelengo ez zauan holakoik ezer, ezerez. Radiua itsasora etorri zan, radiua itsasuan ez zauan, aparatoik eta iñok ez zakan barkuak-eta. Ta nik hemezortzi urte eukiko nittuan-edo, lelengo radiua holako poto zahar bat donostiar batek, Arturo akordatzen ein zoala ta, (botatzekua ta), potentia ta, más contentos que dios. Halako radiua ta haretxekin komunikatzen giñan, kosteria o hau o bestia o. Askotan kosteriak: "Cállate hombre, que estoy comunicando con el otro", eta geuk (...) beti nahi guk geuri atenditzia. Baiña erlojuakin ostientzian más o menos, eta askotan ez giñan etortzen etxera, igual rekalatzen gendun igual sei o zortzi egun itsasuan eñ itsasuan atunetan, eta bueno, etxera gatoz, lau edo bost milla kilo atun-edo ta etxera. Más o menos etortzen ziñan zu, baiña mendixa ikusi arte ez zekizun nora rekalatuko zendun. Igual joten gendun Frantziako kostara, San Juan de Luz aldera, edo igual joten gendun Santanderko altura. Eta handikan jartzen giñan mendixa, "E! Santander da hori, Santanderko..., haura Santaderko mendixa! O Santoñako fraillia o, haura o!" Etortzen giñan orduan handikan tak! eta etxera.

-Mendixak ezagutu bihar.

-Mendixak ezagutu eta gero mendixak (...) giñan, etxera. Baiña ez zauan. Gero bai, gero hasi zianian aparatuak eta "coser y cantar".

-Telefonoik eta asko ez zan egongo. Mariñelei abixatzeko-ta zela egiten zan?

-Telefonoik ez zauan granoik'e. Eta etxian ere ez telefonoik, ez mobilik, telefonoik etxietan ere ez. Mariñelei abixatzeko juten zan txalopa-mutilla, hori bestia gaiñera txalopa mutillan eginkizuna, hamahiru-hamalau urtekin-ta, txalopa-mutilla juten zan gizon danai deitzera banaka-banaka, igual goizeko ordu batetan-edo patroiai etortzen zakon Exkoter, Exkote

zan hemendikan pixkat urrutixo zaona, bestiak barruko kalak ba goizeko hiruretan eta lauretan-eta ertetzen zan, baiña Exkoteran erden bihar zan hamabi tt´erdiak, ordu batak. Patroiak deitzen zion txalopa-mutillai, juten zan patroia txalopa-mutillan etxera, eta esan zion: “Deittu gizonai!”, Txalopa-mutilla segittuan saltoka, jantzi galtzak eta abante saltoka etxetik etxe. Orduan argirik ere ez zeon Mutrikun gure gazte denporan, gabian kendu eitten zan argixa; argi triste simple batzuk egoten zien gabeko hamaikak arte, gero kendu eitten zan argixa. Argirik gabe norbere sonbriai begira askotan (...) eta dedios! Baten bat datorrela gure atzetik. Eta etxia hasi, nik nakazen gizonak txalopa-mutill nabillela, Torromotoneko, han bizi zan gaillegua, Maneiro-edo esaten zixuena, handik hasi, lelengo juten nintzan urrutixen zauan tokira, eta bestek hor barrena, hotel haundixan barrena, Txiki-tta hor eozen kuadrilla haundixena-ta, gero bueltan herri danai txalopa-mutillak deitzen zion banaka-banaka.

15. Atunetara joaten zirenekoa

- **Erref:** MUT-013/017
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 00:37:55. **Bukatu:** 00:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Atunetara joandakoan asteak pasatzen zituzten. Ogia etxetik eramaten zuten; denek tartera batetik jaten zuten. Arraina bakan harrapatzen zen, eta harrapatutakoa hozkailuetan sartzen zuten. Etxera itzultzean familiek egiten zieten harrera azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta gero behin itsasuan zeintzuk izaten zien zuen lanak. Zela izaten zan eguna? Esan dezu astebete-ta egoten zinatela.

-Bai. Atunetan astebete-ta. Zortzi, zazpi, hamar egun’e bai. Arraiña zela harrapatzen zan. Arraiñ gitxi harrapatzen bazan egun gehixo. Eta orduan ogixa’re etxetik eramaten zan, ogirik ez zauan-ta. Ogi holako barra bat edo bi eramaten zoanak, eta gaztiak jan (...) kanporutzian jaten bazoan ogi erdixa edo ogi bat gero ez zakan ogirik’e, eta hantxe tartera batetik jaten zan danak ba, eta zeoze ipiñi bihar zan, platerik eta ez zauan-ta, kutxara batetik hartu eta gero azpizan, ogi gaiñian tak! eta jateko. Ta orduan ogirik ez zauan-ta batzuk tabla puxketa bat eta bestiak eztakit zer ta. Ta ogixa zakanak ere igual, igual laugarren edo bosgarren egunera orduko kardenillua eindda porke ogixa ere ez zan oain bezelako ogixa, gutxiao eiñdda-edo ta, kardenillua, (humedaizua?) segittuan eiten zion, neberaik-eta ez zeon oin bezela sartzeko-ta. Dana otarran egoten zan ogixa, eta behin lau-bost egun egiñ ezkerro ta kardenillua. Baiña zelako gozua kadenillua zakan ogixa? Joer!, batez baiño hobia. Zelako gozua!, batez baiño hobia. Dana barrura. Apetitutu earra-ta.

-Eta gero arraiñak jotakuan?

-Arraiñak jotakuan lana, arraiñak jotakuan ez zauan jatekoik eta edatekoik. Lelengo lana eiñ da gero jan arraiñak jotakuan. Eta josten zanian oin bezela adelanturik ez eta arraiña gitxiao harrapatzen zan, banakio. Atunetan ere pues, porrejenplo, harrapatzen bazendun eguardirako hogeta hamar o

berrogei atun-eo, esaten zan, tira!, arrantza ona, gaberako beste hirurogei harrapatzen badittu... Behiñ ehun atun-edo pasatzen zanian egunian, egun ona. Oiñ igual egun baten harrapatzeittue hogeï milla kilo-ta. Kaiñaberakinta. Geuk'e harrapatu izan deu gero arrastian karnatiakin, baiña kasan ez, kasan ez zauan holako golpeik, kasan izaten zan ba larogei edo ehun atun edo ehun ta hogeï atun-edo, ehuneko taria, tira!, bale! Eta egun guztian pasatu han eta neberan sartu eguardixan zeozen atunak. Euzkixa egoten zan eta euzki beruakin neberan sartu pixkat, eta gero gabian berriz beste haura eta arraiñ ona ekartzeko-edo, hobia ekartzeko-edo. Jelia-ta ez zan asko hartzen-ta, jelia hartzen zan ba, neberak zien txikixak-eta. Orduan nik esaten detan denpora hontan Gure Elenitak zakazen neberiak bost milla kilo arraiñ kabitzen zoan, sei milla kilo estu-estu sartuta. Eta orduan horixe zeozen bost-sei milla kiloko neberak-eta. Gero guk Reina Rosario ein gendunian, hamabost milla kiloko bi nebera, aurrian bat eta atzian bestia. Eta orduan pixkat gehixo. Jatekuantzat eta atzeko neberia ibiltzen gendun askotan ba. Orduan bai ogixak eta gauza danak earki fresko-fresko neberan-da. Baiña bestela hasi giñanian gu itsasora ez zauan holako gauzaik. Ez zauan. Eta arraiña harrapatzen zana ez zan askua, porke gizon askokin segittuan dominatzen genduzen arraiñak. Hemezortzi gizon-ta ehun atun-ta ta jan eingo genduzen orduan guk gordiñik danak.

-Hori maria onakin. Eta maria txarrakin?

-Maria txarrak etortzen zienian baakizu. Eta gero hemen neguan askotan itsaso txarrak, esan dezunian akordatu nai, hemen neguan askotan itsasorako jun, etorri mollara gizonak-eta, eta itsasua haundi tta, haundi tta, jata dana barra-barra eindda ta eziñ erten-ta, bueno, etxera jun bihako gea. Igual Ondarrutik eta Getaritik-eta danak itsasora eta gu buelta ta etxera. Eta igual orduantxe abixua igual, e, gero entera, "Berrogei arrua ta berrogeta hamar eta eraman dittuela-ta." "Mekauben laputa, asko dek ba!". Hurrengo egunian itsasua ondo baldin bazeuan itsasora erten bihar zan. Eta (...) erten ein bihar zan, eta han juten giñan itxasora jun eta gero etortzean andra danak eta molla muturrian zain egoten zian danak eta itsasua zaintzen, korrientia eta haura ta bestia sartzeko barrura-ta. Andrak kontatzen molla gaiñetik: "Bai, arrantza ona, sei otarra badakaz", otarra haundixak izaten zien orduan. Akordatzen haiz Dominotarrak-eta? "Horrek sei otar-eta, bestiak bost otar-ta, harek lau", eta danak kontatzen andrak molla gaiñetik.

X: (Atxarango?) molla gaiñetik..., atxona!, atxona! Eta neuk neure artian, atxona... dios!

16. Mutrikuko moila eta korronte txarrak

- **Erref:** MUT-013/018
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:42:34. **Bukatu:** 00:45:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Moila deskribatzen du eta orduko korronte txarrak aipatzen ditu. Moilan itsasoak etxeen hormak jotzen zituen, eta etxeetako leihoak itxita egoten ziren.</p>

Transkripzioa

-Mutrikuko portuak beti izan dau arriskutsu famia eta batez be lehen esan

dozun molla. Zeuek hola akordatzen al dezue?

-Bai, bai, bai, guk bizi eñ deu hori, bizi eñ deu. Hemengo mollia zeuanian hor, klaro gu gaztiak eta arraunian eta potiñ haundixak egoten zien barkura juteko gizonak. Eta traste danakin jun biha giñan-ta. Eta eukitzen genduzen bi arraun-ta, lau arraun-ta, salterako potiñak, porke bestela zingan arraun batekin ibiltzen giñan hola zuanian egualdi earra baiña, itxasua zeuanian, listo!, patrioiak, atera, preparau arraunak! Eta di-da korrente kontra eta askotan eziñ korrentak eta buelta eta atzera barrura. Korrentia, aida dios!, presaka itxasorako-ta. Kristonak. Eta atzera berriz jun barkura ta jarri tta han molla haundidan erdixan zaiñ, bareunian zaiñ, hor, listo!, listo!, hor gerauta. Geratu hor eta listo!, abante!, eta hartu berriz korrentak eta mollia jota askotan jota barrura ta barkuak-eta. Hemen kristonak ein izan dittuu. Eta bizi guztian gure ilusua izan zan horixe, jun beti Madrillera eta eskatu dirua ta bata ta bestia; jun hara ta, hantxe iñ molla haundi bat itxasua kentzeko ta gero ba pixkat puertuan harrikote honek eta konsegittu genduzen. Lehen ez zezen harrikote honek eta iñun. Honek geratu zouen itsasua asko hemen, e! Hemen josten zon pareta itsasuak, eta gu hor bizi giñan, amona bizi zan hona begira eta gu beste aldera begira, eta jo pareta eta laugarren pisura arte itxasua juten zan balkoira arte , e! Hemen. Eta han etxe berrixak daozen hartan ere bizi zian beste batzuk eta han ez zeon harrikoteik eta ezer e, eta josten zon pareta han'e, eta jota dana bentana danak-eta itxitta eta tabloiak-eta ipinitta egoten zian. Itxasua zauanian jota etxando puñetas danak gorutz juten zan. Honbre! Jota barrura sartzen zan.

X: Hor dana hondarra zan.

G: Hor dana hondarra, eta pareta gero han. Oain daon tokixan ez, e. Bost-sei metro atzero, harutzo, ta bertatik bertara. Jota etxando letxes.

X: Neri amak esaten zian, gure ama hortxe bizi zan bigarren pisuan-ta, txarra zauanian itsasua bentana arte raaaaa! ura.

G: Bai, gure amonanera arte juten zan.

-Billurgarrixa portua.

-Hemen? Hemen itto zienian-ta mollar-ta. Ni gaztia nintzan baiña mollar aittakin etxetik erten gendun danok mollara laguntzera ta haura ta beste. Itxasua hortik sartzen zan gora arte, horra arte, uste zera zala. Itxasua!?

17. Itsaso bajuko pasadizoa; moila txarra Mutrikun

- **Erref:** MUT-013/019
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:45:14. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Itsasora joan eta itsaso bajua zegoela gertatutako pasadizo bat kontaktzen du "Xoxuak". Moila arriskutsua zen Mutrikukoa eta kanpotarrei txalupaz nola sartu behar zuten azaldu behar izaten zieten bertakoek.

Transkripzioa

-X: Guri baten ein zakun, hor itxasotik gatozela, motor txikixa zan, osabana, hamalau kaballoko motorra, barrukaldera jun giñan. Itxasora jun giñanian pixkat zauan, eta gero terriblia itsasua, eta bajamar, eta sartu ein

bihar gendula, korrenta zauan, eta lemako, lema-kania apurtu, apurtu ein zakun, suertia euki, eman abante (...) erdixan eta kanpoaldixa orduantxe hasitta, buelta ta kriston etxera jun giñan (...). Orduan ez zauan, bapor haundixan badao soldatzekua baiña han ez zauan, eta ipiñi hola egur batzuk, jo, halako baten goazen ba segi, hortikan seiñaka gizonak: "sartu barrura!", abante, abante, abante; bajamar, korrentak jo, amuratikan jo petrillian, (koasana?) apurtu, lemakanak jo zoanian-ta apurtu, bultzaka-bultzaka haura're apurtu gendun. Abante barrura! Sartu giñan barrura, jo Martin Txikin potiña... Hona barrura etorri giñan, suertia euki gendun, hona barrura arte.

-G: Enkallatzera, porke potin txikirik eta ez zan amarratzen hor, porke libre bihar zan baezpadare.

X: Baiña gauza bat esaten det. Denporalia zauan, denporalia, gu ohittuta gaozen, halaxe zalakuan. Halaxe dalakuan, sekula estutu gabe. Jo haura, jo hori, gaztiak...

G: Gero're neu barkua Reina Rosariokin-ta, Inmaculadakin-ta, klaro, lagunak eitten dittuzu itsasuan-ta, Santoñarrak eta horrek-eta Mutrikura nahi izaten zoen askotan arraiña saltzera-edo etorri tta, "Segi neuri atzetik", eta hala etortzen zien barrura, baiña bestela? "Ahora ya sabes como tienes que venir, siempre arimándote al este y tal; cualquier día venís a Motriko"-ta. "No, no venimos más allí, no, no, no".

-Zer etortzen ziren, arraiña saltzera?

-Bai. Eta gero hona etortzen zienian mollara amarrauta egon eziñ-ta.

X: Hor zakazun markak. San Migelko harri gorri bat egon zan lehen, fijau za sekula? Lelengo Mendibelzu hartu, Mendibelzu basarrixa ta arbolia-ta zeuan. Harek ebaki zittuen.

G: Bai, baiña hori guk gendekixen, kanpotarrak ez.

X: Kanpokuak ez. Haretxen barrura etortzen giñan, itsasuak joko gaittu, joko gaittu, joko gaittu eta rraaaa pasa.

G: Honek esan doana. Orduan barkuei eukitzen gendun preparauta neguan beste lemakana bat atzian, osea, faillo ematen bazuan lemiak, apurtu eitten zan asko, katiu, lokesea-ta. Atzian ipinita, atze-atzian, gora aterata kubieta gaiñera, eskuko lemakana haundi bat, horrek beleruak eta ibiltze'ittue ba, holakua, por si katiu apurtzen bazan edo, segittuan sartu haura eta haretxekin maniobria itteko. Barkuan danok eukitzen gendun preparauta; ia zelako puertua zan hau. Eta gero ein zienian honek harrikotiak eta asko jarri zan, asko; hau dragatu zanian ta konsegittu gendun, uste konsegittu gendula zera!

18. Santakarra haitzean amarralekua

- **Erref:** MUT-013/020
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:49:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:

Santakarra deitzen zioten haitz handi bat zegoen moilan eta hantxe lotzen zituzten ontziak. Ontzien amarraleku ezberdinak izendatzen ditu.

Transkripzioa

-Lehen bazan Santa Karra. Zer zan, zela zan hori?

-Gregorio: Santa Karra zan, motortxo illara hori, gorri hori badago han ba,

hortxe inguruan zauan Santa Karra, haitz bat. Como si sería amarraderua-
edo, amarradero bat izeten da ba molla gaiñian haundixan; eta bueltan
zakan haitza dana, haitza.

-Ateratakua zan ala berezkua?

-G: Ez, berezkua, berezkua zan haitza, haitza berezkua zan baiña gero
gaiñian ein zixoen amarradero bat, edozein itsasua [...] ba, eta han
amarratzeko, txikotera nahi zoanak amarratu han amarratzen zoen.

-Barku haundixak handikaldian egoten zien?

-G: Handikaldian bai. Santa Karratik harutz.

-Eta salterako potiñak?

-G: Salterako potiñak hemen barruan. Eta hor ere Zingiran,
Montserrateneko aurrian ere amarratzen zian bi barku edo alderdi batetik
bestera. Bueno, hori esaten dot barku txikixauak zianian.

-Xoxua: Zingiria zeukan izena horrek.

-G: Baiña barku baporak-eta zianian, Gure Elenita eta hantxe amarratzen
zeben, bi edo hiru bapor amarratzen zian han, eta gero BH edo haura
Getariarra ekarri zoena, haura ere hantxe amarratzen zan, hauraxe zan
barkuik haundixena, Inaxio Kamiñok ekarri zittuen Getaritikan barku bat,
porke orduan Mutrikuarra zan arrantzalerik onena, porke Getariatik eta
Orixotik eta Mutrikura etortzen zian arrantzan ikastera.

-X: Hau berau be ibilli zan Orixon.

-G: Atunetan-ta, orixoarrak nahi izaten zoen, mutrikuarrak nahi zaten zoen
kazan-ta, eta etortzen zien hona eta ekarri zeben barku bat BH, getariarra.

19. Itsasoko kantuak

- **Erref:** MUT-013/022
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:52:31. **Bukatu:** 00:54:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

<p>Itsasoan kantuan aritzen ziren eta abesti batzuen izena aipatzen dute.</p>

Transkripzioa

-Lana asko eta gogorra, baiña guk entzun degu itsasuan kantau ere egiten
zendutela.

-Bai.

-Akordatzen zer kantatzen zenduten?

-Edozer guk.

-Kantia kantidadia, edozer. Andaluzez igual.

-Baiña hemengo kantak, mutrikuarrenak.

-Baiña guri kantatzen ez ipiñi hemen, eztarrixa izorrauta dakat, nik
behintzat.

-Pixkat.

-Xoxua: zeoze bai, "Bi arioplano pasata" horrek kantatzen genduzen
behintzet.

-Eta ze gehixago kantatzen zenduenik?

-Kantak, e, hasi tta amaittu iñor ez, baiña erdi kantau danak.

-X: "Somos afiladores"´e bai.

-"En la época de invierno"-ta. Horrek gure gazte-denboran atara genduzen

bertsuak-eta.

-Bazegoen mariñelene bat kantatzen zenduena?

-Ez, bestela. [...] Bai, oiñ herrixan kantatzen dian kanta danak. Eta gero tartian batek boza ona bazakan ataratzen zoan gorgoriton bat-eta.

-X: Orduan kantatu asko eitten zan, e! Lihorrera etorritta ere bai.

-Baiña ez hola kantatu tripulazio dana batuta eta ez, e. Atzian bazezen hiru lau harek kantatzen eta gero aurrian bestiak´e kantatzen-eta. Egualdi earra zauanian eta arrantza ona itten zanian-ta.

-Euskeraz bai kantau?

-Bai, euskeraz. Guk euskeraz eitten gendun dana.

-Zertzuk gehixago? Akordau bai kanta gehixagokin?

-X: Gero akordauko naiz ni.

-Hau asko akordatzen da lehenaoko kantakin.

20. Lehorrera iritsiera

- **Erref:** MUT-013/023
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:54:17. **Bukatu:** 00:56:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Lehorrera iristean egiten zitzaien ongietorria aipatzen dute. Emakumeek moilara gasaria eramaten zieten marinelei.

Transkripzioa

-Itsasuan egoten ziñaten, baiña gero lehorrera giatzen ziñaten mendixekin. Ongi etorririk egoten zan, danak zuen zain?

-Keba. Gure denboran-ta ez. Hori zan gure gurasuen-ta denboran-ta, gure aittonen-ta denboran-ta. Txalopa haundixak zienian da. Orduan jutten zien belan, jutten zien igual Asturias arte ta abar-ta, etortzen zienian hiru hillabete eindda edo, orduan jutten zien andra danak umiak-in-ta ta Samikollara eta ikusten zebeñian [zoenian] han aparteko aldiñ belan, "Han belan txalopa haundixak, han apartera ta!", orduan ongietorrixak egoten zien ume danakin andrak moillara ta bestia ta; baiña orduan tardatzen zebeñ igual azaltzen zienetik barkuak belakin igual egun bat etortzen etxera. Matxa... Bermio gaiñetik eta igual haize gitxi bazeuan egun bat igual etxera etortzen-ta, zain andra danak umiekin-ta. Baiña guk ez. Askotan etortzen giñan iñok jakin gabe. "Han, e, sartu da holako ta!" "Ene, holako dago bentan saltzen-ta." "Sin más".

-Xoxua: Ohittura zauan, gu gaztiak giñanian ohittura bat andrak etortzen zien, andrak, andria honena ta beste batena ta, libre zein dauen; eta etortzen zien eta otarria eramatera. Otarreko arraiñak zien horrek gure aureko horrek. Hartzen zeuen andriak preparau buruan eta da! Ni gaztia ez nintzan orduan eta ama, gure ema etorri zan eta, "Ze?" ta "Armozua ekartzera", "Armozua ekartzera etorri nahi baezu baiña arraiña eramatera ez, neuk ekarriko det gero gorutza". Ohittuerak zien horrek.

-Porke orduan primaberan izaten zan, primaberan antxoiakin etortzen bazan barkua ta, andrak jutten zien moillara armozua eramatera, honek esan doana, kafesnia zopak eindda o, holako zera batzuk egoten zien, pote batzuk eta. Armozua eramatera. Atunetan-ta bai.

-X: Sartzekua. Sartu hola atzeraka behetik gora kertena eta gero tapau.

-Neri andriak eta alabak ekarri izan dit, Karmen, oaindio ez dia urte asko armozua moillara atunetan. "Kendu eizu armozua!" "Ez." Bazekixan kafesnia zopakín gustatzen zatena ta armozua ekartzera. Baiña lehen lehen [juten zien] gehixo.

21. Lehorreratu osteko lana

- **Erref:** MUT-013/025
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:57:14. **Bukatu:** 01:00:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Portura sartzean, arraina atera, pisatu, itsasontzia garbitu eta berriz ateratzeko prest uzten zuten. Hurrengo egunera arte libre izaten zuten marinelek. Arrainik handienak aukeratu eta bakoitzarentzat kaxak prestatzen ziren. Patrioiak egiten zuen kaxa haien banaketa. Kanpotik ere etortzen zen jendea arraina erostera. Atuna saltzen zen ondoen.

Transkripzioa

-Behin portura sartuta arrainakin-eta ze lan izaten zian?

-Arraiña atera-ta. Arraiña atera, pixatu, barkua gero garbittu, jelak eta hartu, izotzak eta gasoillak-eta hartu, preparatu itxasorako barkua. Eta gero preparatu, segittuan preparatu barkua. Eta gero patrioiak ematen zoan ordua, ba goizaldera hurrengo egunian-o, o eguardixan-o.

Jeneralmente eitten zan ba egun haura, arraiña deskargatzeko eguna pasatu, barkua preparatu egun hartan bertan ta gero libre gizonak hurrengo egunera arte, eguardira arte o, goizera arte-o.

-Eta zela egiten zenduen arrain partitzia-ta, ta dana?

-Arraiñ partitzia eitten zan arraiñik onenak, haundixenak apartatzen zien danai igualak egoteko moduan, gizon danai, eta atunetan baldin bazan atun bana. Hiru kaja edo apartatzen zien gizonentzat, eta harek partittu ta etxerako gizonak arraiña beti eramaten zoan.

-Zeiñek erabakitzen zeban? Patrioiak erabakitzen zeban arrain partitzia?

-Bai, jeneralmente patrioia, jeneralmente patrioia, baiña askotan gizonakin komentauta. "Ze, hiru nahikua dia o, hiru kaja-o, edo bikin nahikua degu-o?" Karu eitten zoanian eta pixka bat,e: "Iguar bikin nahikua izango da" ta. Merki baldin bazan ba "hiru kaja partittuko dittu" ta. Eta asko, merke-merke bazan eta arraiñ asko bazagon ba igual sei kaja-eo, arraiña nahi beste eramateko modua.

-Kanpotik etortzen zien hemengo enpresak arrain bila?

-Kanpotik etortzen zien enpresak. Kanpotik etortzen zien jendia arrain billa, arraiña erostera. Hamen Mutrikun hemen barku asko egon zienian-ta kanpotik etortzen zien, atuna ondo saltzen zan Mutrikun, atuna beti ondo. Antxoia ta pixkat gutxio, freskorako-ta beti izan da Ondarrua-ta hobia, baiña atuna hemen Mutrikun ondo saltzen zan.

-Andrak gehixao arraiñan zain baiño jernalan zain egongo ziren?

-Bai, arraiña pecata minuta; jornala, partillia. Ta gu etorri orduko askotan gu etorri orduko arraiñakin Atxukaletikan mariñel zaharrak eta [bestien] partillia eindda, lihottarrak igual Atxukalian partillia indda: "Hogei milla kilo ekarri deu holako preziotan, honenbeste irabazi dau honek". [Beronek] sekula jakiñ ez, baiña lihottarrak jeneralmente partillia indda.

-Xoxua: Mariñelak ze irabazten [deuen]: "Holakok eñ deu partillia, bestiak halako eñ deu". Mundu danak, eta lihortarrena sekula jakiñ ez. Hori hola da, e.

22. Marinelen lehorreko lagunartea

- **Erref:** MUT-013/026
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:00:06. **Bukatu:** 01:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Lehorrean, lagunekin taberna batean elkartzen ziren, eta kartetan aritzen ziren ardoa limonadarekin edanez. Jaietan, plazara atera eta aurreku dantza egiten zuten neska-mutilek. Garai hartan sagardoa edaten zen; txakolina gerora sortu zen.</p>

Transkripzioa

-Behin lihorrera etorrita lagunekin batuko ziñaten kalera ertetzeko. Nun batzen ziñaten?

-Xoxua: Gure zerbizua egin ezker pixkat aurreraotikan gu Kiloxenian.

-Gregorio: Jeneralmente Kiloxeneko tabernia zan.

-X: Hortxe batzen giñan kuadrillia, kuadrillan geozen hamabi-hamalau lagun.

-Zelakua zan tabernia?

-Oin bodegoia dana. Osea ke terrenuan igual; bestaldera, han barruan zakan reserbaua bezela [merixendak]-eta eitteko-ta, ta gero kanpuan txikiteorako ta jentia egoteko tokixa. Igual. Oaintxe bezelaxe, igual xamar.

-Edateko zer zeuan? Oain bezela wiskixa ta ez zan egongo?

-X: Ez. Guk [eraten giñuan] ardaa limonadiakin. Limonadia gehixao ardaa baiño, hantxe kartetan zarataka-ta ibiltzen giñan, ta gero hiru-lau txikito edatera. Han beti limonadiakin. Igual frontoian ibili pelotan-ta ta, bata ta bestia-ta "guazen Kiloxenera"-ta. Porroittik.

-Jaixak zienian-ta ere, igual aureskua atera plazan-o, neskakin-ta, zain egoten zien neska danak, ta eitten genduzen dantzaldixak eta gero aureskua atera-ta. Gero aureskura ateratzen genduzen neska danak hartu ta juten giñen Kiloxenera ta ipiñi txarro haundi batzutan zerbeza ta limonadia ta danok eitten gendun kriston haura ta gero...

-Kantuan tabernetan?

-Bai. Kantuan ta dantzan-ta orduan izaten zan. Oain hor ibiltzen dian bezela gaztia- eta, neskak-eta, bakarrik eta gu... Neskak egoten zien zain guk inbitatu arte-o, dantzara atera ta gero limonadia zerbezakin edan basokada bana edo biña eta gero juten giñan dantzan eittera ta kantatzen kalian barrena ta geure gazte denboran.

-Orduan horixe, zerbeza ta. Kokakolaik ez zauan, kokakolaik ez.

-Sardaua eta txakoliña?

-Sardaua ta bai. Txakoliña gitxio, txakoliña gitxi edaten zan orduan. Oain txakoliña edaten da asko baiña orduan ez zauan, txakolin gitxi, eta ez zan edaten. Txakoliña eraten zoanak orduan pues kapritxoson bat hola, txakoliña-ta, Getariako txakolin edarra ta bestia. Gero hasi zien txakoliñak-

eta eitten, oaingo hamar urteko, hamabos urteko gauzia da hori. Gehixo, gehixo. Geuk [da-ra-mau] ixa hogeitau urte jubilautea ta gehixo. Baiña oain hogeta hamar urte ta hasi zan txakoliña ta. Baiña ordura arte...

23. Jaietako buelta eta Dakar taberna

- **Erref:** MUT-014/002
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:00:04. **Bukatu:** 00:01:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

"Buelta" zeri esaten zioten azaltzen dute: "beheko plazara joan eta dantzan egitea". jaietan, neskak 21:00ak 21:30erako etxeratu egin behar izaten zuten. Astegunetako lagunartea. Dakar taberna: izen hori zergatik jarri zioten azaltzen dute. Kanean gora eta behera ibiltzen ziren.

24. Atxukalea

- **Erref:** MUT-014/003
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:02:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Neguan, itsasora joan aurretik, patroik guztiak Atxukalean batzen ziren. Eguraldiaz, arrainaz... hitz egin eta erabakiak hartu ohi zituzten bertan.

25. Lehorreko lanak eta patroik titulua

- **Erref:** MUT-014/004
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:02:59. **Bukatu:** 00:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Lehorrean zeudenean zer egiten zuten. Goizetan lonjan lanean aritzen ziren (aparejuak prestatu, sareak zabaldu... behar izaten ziren), eta arratsaldetan, eskola partikularrean joaten ziren (patroik eta makinista ikasketak egiteko). 17 urte zituela joan zen Gregorio Arrantza Eskolara, baina soldadutza egin aurretik ez zen alturako patroik titulurik atera. Soldadutzan bigarren

komandanteak eskolak ematen zizikion; handik joan zen Pasaiara patroia titulua ateratzeko azterketa egitera.

26. Itsasoa eta jaiak

- **Erref:** MUT-014/005
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:04:32. **Bukatu:** 00:06:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

<p>Herriko jaietan itsasontziak herrira bueltatzen ziren. Malenetan bi egun egiten zituzten jai marinelek. San Pedroetan, egun bat. Batzar asko egin ondoren, aldatu egin zituzten jaiegunak. Gero, Kalbario eta San Piñastegi jaietan ere jai egiten hasi ziren marinela.</p>

27. San Piñastegi jaien jatorria

- **Erref:** MUT-014/006
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:06:11. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Piñastegi jaien jatorria. Marinelek bultzatutako jaieguna zen sorreran. Aurreneko San Piñastegi Eguna nolakoa izan zen kontatzen du: marinela harri-jasotzeko itxurak egiten, moilan zezenak toreatzen... Krexen eta Paletas marinela aipatzen dituzte.</p>

28. San Pedro jaiak

- **Erref:** MUT-014/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:08:46. **Bukatu:** 00:10:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

San Pedroa jai marinelentzako berezia izaten zen. Prozesio eta dantzetan parte hartzen zuten. Itsasontzi handiekin atunetara joaten hasi zirenean San Pedro egunan itsasoan egoten ziren. Urte batean Korputz Egunez Vigon prozesioa egin zutela kontatzen dute. Keleo eta Patxiko Txiki marinela aipatzen dituzte.

29. Kanturako joera

- **Erref:** MUT-014/008
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:10:41. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:

<p>Kanturako joera handia zuten. Herriko lagun talde batzuk aipatzen dituzte.</p>

30. Kalbarioko kofradia

- **Erref:** MUT-014/009
- **Iraupena:** 0:05:07. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Kalbarioko kofradia baserritarrek eta marinelek osatu zuten. Gregoriok hainbat urte egin zituen kofradiako presidente moduan. Kalbarioko kofradioaren historia kontatzen du.

31. Baserritarrak eta marinelak

- **Erref:** MUT-014/011
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:16:24. **Bukatu:** 00:17:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Baserritarren eta marinelen arteko harremanaz hitz egiten dute. Lehen, marinelak mendira joaten ziren egur bila eta baserritarrek ez zuten hori ondo ikusten.

32. Korrika-apustua

- **Erref:** MUT-014/013
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Baldomin baserritarren eta Txurrukita kaletarraren arteko korrika-apustua. Mutrikutik Debara joan behar zuten korrika.

33. Pilota desafioak

- **Erref:** MUT-014/014
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:20:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilota partidak tabernetako desafioak izaten ziren. Keleo eta Konpitxoren arteko pilota desafioa kontatzen dute. Herrian desafioaren berri jakiten zen, eta frontoia jendez betetzen zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com